

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 895/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko ekainaren 14koa, Kanpo-mugetan pertsonen kontrolerako erregimen erraztu bat ezartzen duena, Txekiar Errepublikak, Estoniak, Ziprek, Letoniak, Lituaniak, Hungariak, Maltak, Poloniak, Esloveniak eta Eslovakiak, alde bakarrez, beren lurraldeetatik igarotzeko bisa nazionalen baliokidetzat onetsitako zenbait agiritan oinarrituta.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta zerbitzu horren ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Decisión N° 895/2006 CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 14 de junio de 2006, por la que se establece un régimen simplificado de control de las personas en las fronteras exteriores basado en el reconocimiento unilateral por la República Checa, Estonia, Chipre, Letonia, Lituania, Hungría, Malta, Polonia, Eslovenia y Eslovaquia de determinados documentos como equivalentes a sus visados nacionales para fines de tránsito por sus territorios*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 167/1 de 20/6/2006)

I

895/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2006ko ekainaren 14koa,

Kanpo-mugetan pertsonen kontrolerako erregimen erraztu bat ezartzen duena; Txekiar Errepublikak, Estoniak, Ziprek, Letoniak, Lituaniak, Hungariak, Maltak, Poloniak, Esloveniak eta Eslovakiak, alde bakarrez, beren lurraldeetatik igarotzeko bisa nazionalen baliokidetzat onetsitako zenbait agiritan oinarrituta.

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatu eta, bereziki, haren 62. artikulua 2. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikuluan ⁽¹⁾ ezarritako prozedura jarraitu da.

Honako hauek kontuan hartuta:

- (1) 2003ko atxikitze-aktaren 3. artikulua 1. paragrafoak xedatzen duenez, 2004ko maiatzaren lehen Batasunean sartu ziren estatu kideek, data horretatik aurrera, bisa eskuratzeko obligazioa betearazi behar diete Kontseiluak 2001eko martxoaren 15ean onartutako 539/2001/EE Erregelamenduko I. eranskinean zerrendatutako hirugarren herrialdeetako herritarrei. Erregelamendu horrek zerrendatzen du zein herrialdeetako herritarrek bete behar duten obligazio hori eta zein herrialdeetako herritarrek dauden betebeharrak horretatik salbuetsita⁽²⁾.
- (2) 2003ko atxikitze-aktaren 3. artikulua 2. paragrafoaren arabera, Kontseiluak berariazko erabaki bat hartu ondoren soilik aplikatuko dira gai hauei buruzko Schengengo xedapenak estatu kide berrietan: egonaldi laburretarako bisatu bateratuak jaulkitzeko baldintza eta irizpideei buruzkoak, bisak elkarri onesteari buruzkoak, eta egoitza-baimenen eta bisen arteko baliokidetzari

¹ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006ko apirilaren 6koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko ekainaren 14koa.

² L 81 EO, 2001/03/21ekoa, 1 or., azken aldiz 851/2005/EE Erregelamendua aldatua (L 141 EO, 2005/06/04koa, 3 or.).

buruzkoak. Hala ere, aipatu xedapenak atxikitze-egunetik bertatik lotesleak izango dira estatu kide berrientzat.

- (3) Beraz, estatu kide berriek bisa nazionalak jaulki behar dizkiete hirugarren herrialdeetako herritarrei, beren lurraldeetan sartzeko edo horietatik igarotzeko. Herritar horiek bisa edo agiri hauetakoren baten titularrak izan behar dute: bisa bateratua, egonaldi luzerako bisa, estatu kideren batek —Schengengo altxorra erabat aplikatzen duena— jaulkitako egoitza-baimena, edo horiei parekatutako agiriren bat, beste estatu kide berriren batek jaulkitakoa.
- (4) Schengengo altxorra osorik aplikatzen duten herrialdeek nahiz estatu kide berriek jaulkitako agirien titularrak ez dira arriskutsuak estatu kide berrientzako; izan ere, beharrezko kontrol guztiak egin dizkiete gainerako estatu kideek. Estatu kide berriei arrazoirik ez jartzeko, arau komunak ezarri behar dira, estatu kide berri horiek aipatu agiriak alde batez onesteari eta beren bisa nazionalen baliokidetzat hartzerik izan dezaten; hala, alde bateko baliokidetzaren onarpenaren bidez, pertsonen kontrolerako erregimen erraztu bat ezartzeko kanpo-mugetan.
- (5) 2003ko atxikitze-aktaren 3. artikuluko 2. paragrafoaren lehen letrikadan ezartzen denez, arau komunak aldi iragankor batez aplikatu behar dira. Kontseiluak erabakiko du, erabaki bidez, noiz arte luzatuko den aldi hori.
- (6) Agiria estatu berri bakar batetik edo gehiagotatik igarotzeko onetsiko da soilik, eta ez dio estatu berriek egonaldi laburretarako bisa nazionalak jaulkitzeko aukerari eragingo. 2003ko atxikitze-aktan xedatutakoari jarraiki, sistema komunean parte hartzea aukerazkoa izango da, eta ez zaizkie estatu kide berriei betebeharrak gehiago ezarriko.
- (7) Arau komunak aplikatuko zaizkie Schengengo altxorra osorik aplikatzen duten estatu kideek

emandako epe laburreko bisa bateratuei, egonaldi luzeetarako bisei eta egoitza baimenei, bai eta estatu kide berriek emandako egonaldi laburretako bisei, egonaldi luzetarako bisei eta egoitza-baimenei ere.

- (8) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 562/2006 Erregelamendua, 2005eko martxoaren 15ekoa, pertsonak mugetatik igarotzeko araukoden bat ezartzen duena —mugei buruzko Schengen kodea—¹⁾ osorik aplikatzeko bada ere, salbuespen bat egingo da 5. artikulua 1. paragrafoko b) idatz-zatian araututakoarekin. Izan ere, Erabaki honek erregimen bat ezartzen du Europar Batasuneko estatu kide berriek aukera izan dezaten alde bakarrez aitortzeko Schengengo altxorra osorik aplikatzen duten estatu kideek jaulkitako zenbait igarobiderako agiri, bai eta beste estatu kide berri batzuk igarotzeari buruz emandako antzeko beste agiri batzuk ere.
- (9) Erabakiaren helburua honakoa da: estatu kide berriek beste estatu kide batzuek igarotze-helburuekin jaulkitako zenbait agiri alde batez onesteko erregimena ezartzea. Estatu kideek ezin dute helburu hori behar bezala lortu, eta, beraz, aipatu erabakiaren garrantzia eta ondorioak direla-eta, hobeto lor daiteke Erkidegoaren bidez; horrenbestez, Tratatuaren 5. artikuluan jaulkitako subsidiariotasun-printzipioaren arabera, Erkidegoak neurriak har ditzake horren guztiaren inguruan. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioa betez, helburu horiek lortzeko neurriak hartzera mugatzen da Erabaki hau.
- (10) Erabaki honek ez du Schengengo altxorraren xedapenik garatzen Europar Batasuneko Kontseiluak Islandiako Errepublikarekin eta Norvegiako Erresumarekin egindako akordioaren arabera (akordio hori Schengengo altxorra bi herrialde horietan ezarri, aplikatu eta garatzeari buruzkoa da), izan ere, Schengengo altxorra oraindik osorik aplikatzen ez duten estatu kideei soilik zuzentzen zaie erabaki hau. Hala eta guztiz ere, Schengen sistemak koherentzia izan dezan eta behar bezala funtziona dezan, erabaki honek kontuan hartzen ditu Schengengo altxorraren betearazpenari, aplikazioari eta garapenari atxikita izan eta Schengengo altxorra osorik betetzen duten hirugarren herrialdeek (Islandia eta Norvegia, kasu) emandako bisa eta egoitza-baimenak,.
- (11) Erresuma Batuaren eta Irlandaren jarrerari buruzko Protokoloaren (Europar Batasunaren Tratatuaren eta Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaren eranskina) 1. eta 2. artikulua betetzeko, bi Estatu kide horiek ez dute erabaki hau hartzeko prozesuan parte hartzen.
- (12) Danimarkaren jarrerari buruzko Protokoloaren (Europar Batasunaren Tratatuaren eta Europako

Erkidegoa Eratzeko Tratatuaren eranskina) 1. eta 2. artikuluen arabera, Danimarkak ez du erabaki hau hartzeko prozesuan parte hartzen.

HONAKO ERABAKI HAU HARTU DUTE:

1. artikulua

Erabaki honek kanpo-mugetan pertsonak kontrolatzeko erregimen erraztua ezartzen du, eta erregimen horrek aukera ematen die Txekiar Errepublika, Estonia, Zipre, Letonia, Lituania, Hungaria, Malta, Polonia, Eslovenia eta Eslovakiari (hemendik aurrera, estatu kide berriak) zenbait agiri beren bisa nazionalen baliokidetzat alde bakarrez onesteko, pertsonak haien lurraldeetatik igaro daitezten. Hauek dira alde bakarrez onar ditzaketen agiriok: erabaki honek pertsonen igarobiderako xedez 2. artikuluko 1. paragrafoan adierazten dituenak eta 3. artikuluan adierazitakoak, betiere, beste estatu kide berriek 539/2001/EE Erregelamenduaren arabera bisa beharrean dauden hirugarren estatuetak nazionalen eman beharrekoak badira).

Erabaki honek ez du eraginik izango kanpo-mugetan pertsonen egiten zaizkien ikuskapenetan; betiere, 562/2006/EE Erregelamenduren 5etik 13ra eta 18tik 19ra bitarteko artikuluek araututakoari jarraiki.

2. artikulua

1. Estatu kide berriek bisa nazionalen baliokidetzat eta lurralde-igarobiderako agiritzat jo ditzakete agiri hauek, agiriaren titularren naziotasunari erreparatu gabe:

- i) «bisa bateratua» (Schengengo Akordioa aplikatzeko Hitzarmeneko 10. artikulua),
- ii) «egonaldi luzerako bisa» (Schengengo Akordioa aplikatzeko Hitzarmeneko 18. artikulua),
- iii) «egoitza baimena» (Jarraibide Kontsular Erkidearen IV. eranskina).

2. Estatu kide berriren batek erabaki hau aplikatzea erabakitzen badu, lehenengo paragrafoan aipatutako agiri guztiak onetsi beharko ditu, horiek eman dituen estatua kontuan hartu gabe.

3. artikulua

2. artikulua aplikatzen duten estatu kide berriek aukera izango dute beste estatu kide berriren batek edo batzuek epe laburrerako edo epe luzerako emandako bisa eta egoitza-baimenak beren bisa nazionalen baliokidetzat onesteko, pertsonak haien lurraldeetatik igaro daitezten.

Eranskinean zerrendatzen dira estatu kide berriek emandako zein agiri onets daitezkeen erabaki honen ondorioz.

¹ L 105 EO 2006/04/13koa, 1. or

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

4. artikulua

Estatu kide berriek beren bisa nazionalen baliokidetzat eta lurralde-igarobiderako xedez onetsi ahal izango dituzte agiri horiek, baldin eta hirugarren herrialdeko naziotasuna duen pertsonak estatu kide berrian edo berrietan igaro beharreko denbora-epea bost egunetik gorakoa ez bada.

Lurraldean igaro beharreko denborarekin bat etorriko da 2. eta 3. artikuluan adierazitako agirien balio-denbora.

5. artikulua

Erabaki hau aplikatzea erabakitzen duten estatu kide berriek Batzordeari jakinarazi beharko diote 2006ko abuztuaren 1a baino lehen.

Estatu kide berriek jakinarazitako informazioa *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratuko du Batzordeak.

6. artikulua

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu eta hogeit egunera jarriko da indarrean erabaki hau.

Batzordeak erabakiko du erabaki hau noiz arte aplikatu (2003ko Atxikitze Aktaren 3. artikulua 2. paragrafoko lehen lerroakadak araututako moduan hartuko da aplikazio-denbora erabakitzeke erabaki hori).

7. artikulua

Estatu hauek dira erabaki honen hartzaile: Txekiar Errepublika, Estonia, Zipre, Letonia, Lituania, Hungaria, Malta, Polonia, Eslovenia eta Eslovakia.

Estrasburgon egina, 2006ko ekainaren 14an.

Europako Parlamentuaren izenean

Presidentea

J. J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean

Presidentea

H. WINKLER

